

Erf.: Bermeoko zarata mapa hasikeraz onartzea
Tx. zk.: 15/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko Behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Bermeoko zarata mapa hasikeraz onartzea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Argudio juridikoak

a) Aurrekariak

Bakarra: Urigintza batzordeak, 2015eko azaroaren 2ko batzarrean, Bermeoko zarata mapa hasikeraz onartzearen aldeko erispena emon eban.

b) Oinarriak

Bakarra: Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuak, honakoa dino zarata mapei buruz:

6. artikuluan: “Eskumen hauek udalerriei dagozkie:

(...) e) Beren lurralde-esparruari dagozkion zarata-mapak egin, onartu, berrikusi eta jendaurrean jartzea”.

10. artikuluan: “1.– 10.000 biztanletik gorako udal guztiek egin beharko dituzte zarata-mapak. Zarata-mapa horri esker gauzatu ahalko da, ondoren, udal-lurrei eragiten dieten eta tokiko administrazioak garrantzizkotzat jotako fokuek dekretu honen aplikazio-eremuan sortzen duten zarata-mailaren ebaluazio orokorra. Beste alderdi batzuen artean, dauden eta etorkizunean eraikiko diren hiriguneen gaineko inpaktua aztertu beharko dute zarata-mapek.”

12. artikuluan: “(...)2.– Zarata-mapak egiteko orduan, jarduerarekin lotutako beste administrazio batzuek eskuragarri duten informazioa aintzat hartu beharko du tokiko administrazioak eta, akustikaren alorreko ekintza-planak edo neurriak ezartzen badira, azken horien eraginkortasuna aztertu beharko du”.

13. artikuluan: "1.– Hortaz, 10. artikuluan aipatutako zarata-mapak hilabetez atera beharko dira jendaurrera, gutxienez ere. Hala, bada, horren berri eman beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkarian, pertsona fisiko edo juridiko orok dagoen dokumentazioa eta erabilitako prozedurak aztertzeko aukera izan dezan. Agiriak non erakutsiko diren eta alegazioak egiteko epea zein den zehaztu beharko da iragarkian.

2.– Administrazio eskumendunak bi hilabeteko epea izango du zarata-mapa onartzeko, alegazioak aintzat hartuta, azken horiek aurkezteko epemuga bukatzen den egunetik zenbatzen hasita.

3.– Zarata-mapa onartzen duen erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion lurralde historikoko aldizkarian edota dagozkion lurralde historikoetako aldizkarietan argitaratuko da.

4.– Azkenik, 10. artikuluko 1, 2 eta 3 paragrafoetan aipatutako zarata-mapak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzara edota dagokion ala dagozkion lurralde historikoetako Foru Aldundietara bidali behar dira beti, formatu digitalean, haiei atxikitako analisi-agiri eta dokumentazio grafikoarekin batera".

Beraz, 13. Artikuluan xedatutakoa jarraitu beharko da zarata-mapa onartzeko.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko azaroaren 12an

Karmele Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria